

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO HITZAK EKIMEN HAUETAN PARTE HARTU DU

PIZKUNDEA: 2026ko ekainaren 13an, Euskalgintzaren Kontseiluak antolatutako Pizkundea martxarako autobusa antolatu genuen eskualdeko beste eragile batzuekin batera. Ikui [albistearen](#) [hemen](#).



ESNATU: 2026ko apirilean, UEMAk, Esnatu ekimena jarri zuen martxan. Guk ere parte hartu dugu eragile bezala, eta euskara hauspotzen jarraitzeko konpromisoak adostu ditugu. Irakurri [albistearen](#) [hemen](#).

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak. Esnatu dinamikaren baitan hartzen ditugun konpromisoak

- Esnatu ekimenaren berri egunkarian, webgunean eta sare sozialetan emateko konpromisoa hartzen dugu.
- Albiste nagusia izan ez arren, euskarazko gaiak izanez gero egunkariaren azalean argitaratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu. Izan ere, euskara gure balioetako bat da eta lehentasuna ematen diogu.
- Euskararen normalizaziorako bidean urratsak ematen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Euskalgintzako dinamiketan parte aktibo izaten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu: Korrika, Berbalagun, Bizkaiko euskalgintzaren topaketak...
- Ondarroako eta Gernika-Lumoko udal euskara batzordeetan parte hartzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzak arnasmuneetako euskaldunen hizkuntza eskubideak aintzat hartu eta euskal prentsa sustatzeko konpromisoa hartzen du (Hekimenen parte ere bagara).
- Euskaltzaindiaren Euskararen Erreferentzia Corpusaren parte aktibo izaten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.

Bidalitako eredutik hartzen ditugun konpromisoak:

- Gure jarduna euskara hutsez aurrera eramaten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Udalerriko herritarrei gure arnagune izaera eta horren garrantzia transmititzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Gure euskarazko eskaintza herritar gehiagorengana helarazten saiatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Eskualdeko beste euskara taldeekin/kultur elkarteekin harremana estutzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Eskualdearen arnagune izaera sendotzeko eskualde mailako egitasmoak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Gure arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Taldeko kideon artean euskararen inguruko kontzientziazioa lantzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Gure hornitzaileekin euskaraz komunikatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- Administrazio erakundeekin ditugun harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartzen dugu.

ERRIGORA: urtero sustatzen ditugu Errigora proiektuaren kanpainak. Elkarlan hitzarmena daukagu sinatuta eta kanpainak hurbiltzen direnean (udaberrian eta udazkenean), [albiste](#) ateratzeaz gain, promozioa ere egiten dugu.



EUSKARAREN ERREFERENTZIA CORPUSA: 2025ean Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu genuen, Euskararen Erreferentzia Corputa osatzeko lankidetzarako. [Albiste](#) [ikusi](#)



BIZKAIKO EUSKALGINTZAREN TOPAKETAK: 2022an eta 2023an, Bizkaiko aldundiak antolatutako “Bizkaiko Euskalgintzaren topaketak”



KORRIKA: Korrika ospatzen den guztietan kilometroa erosten dugu eta lekukoa eramaten dugu, bai Lea-Artibain eta bai Busturialdean. Hemen 2026ko argazkiak



ERAIN ETA ERAIN EUSKARARI: 2026ko Korrika Kulturalaren barruan, Seber Altube Ikastolak eta Seberbaz euskara taldeak Erein eta Erain euskarari ekimenean antolatu zuten,. Hitzako ordezkari batek hizlari bezala parte hartu zuen bertan. Ikusi [hemen albistea](#).



EUSKARALDIA: Euskaraldia ospatzen den urte guztietan Arigune moduan jartzen dugu eta lankide guztiok Ahobizi rola hartzen dugu. Hemen 2025eko edizioko adibidea.



EUSKARAREN EGUNA: Euskararen egunaren inguruan, eskualdeko herrietan antolatzen diren ekintzetan parte hartzen dugu. Urte bakoitzean herri batera joaten gara eta postu bat jartzen dugu, jolas eta ekintza desberdinak eskeiniz.



GAITU: 2023an, [GAITU proiekturako](#) euskarazko edukiak bildu genituen Bermeen.



EUSKARABILDUA: 2024an euskarabildua kanpainaren inguruko informazioa emateaz gain, promozioa ere egin genien, webgunean banerra txertatuz. Ikusi [albistea hemen](#).



UDALETAKO EUSKARA SAILEKO PLAN ESTRATEGIKOA: gure eskualdeetako herri handietako udalek Euskara plana osatzeko parte-hartzeko deialdia egiten dutenean, prozesuan nurgiltzen gara. Azkena